

# Hebraieraren berbizkundearen historia laburra

Chaim Rabin

*1915ean jaio zen Giessen-en, Mendebaldeko Alemanian. Chaim Rabin-en gurasoak juduak ziren, jatorriz ukrainarrak. Hezkuntza Alemanian egin zuen, 1933an batxilergoa bukatu arte. Jerusalemgo unibertsitate hebraikoan hebraiera ikasketak, 1933-34ean. Londresen, arabiera eta hizkuntzalaritza semitarraren ikasketak, 1934-39an. Azken urte honetan doktoratu zen, mendebaldeko arabiera zabarrari buruzko tesiaz. 1941-43: Oxford-en aritu zen bere doktor tesia prestatzen. Gaia: Hebraiera Espainian Erdi Aroan. 1942-56: Oxford-eko Unibertsitatean hebraiera postbiblikoaren irakasle izan zen, eta 1963az gero, Jerusalemgo Unibertsitate Hebraiarrean irakasle da.*

*Jerusalem-era iritsiz gero, honako alor hauetako espezializazioa egin du: gramatika konparatzaile semitar eta txamito-semitarra, semantika, etimologia, itzulpenaren zientzia, eta soziolinguistikako zenbait gai, hizkuntzen berbizkundera eta hizkuntzen bilakaeraren plangintza, besteak beste.*

Hebraiera zen Israelgo herriaren zibilizazio-hizkuntza aro biblikoan, 1250-200 K.a., eta Jakintsuen aroan, gure aroko 200era arte. Ia mila eta bostehun urtez hebraiera izan zen herriaren hizkuntza. Bi aro handi izan zituen literaturari dagokionez: biblikoa eta rabinikoa, bakoitza bere literatur hizkera bereziarekin. Hizkera biblikoa Testamentu Zaharraren bidez bakarrik dugu ezagun. Ia 300.000 hitz arrunt dituen liburua baita, 8.000 bat hitz jaso dizkigu seguraski oso aberatsa izango zen hizkuntzatik hartutakoak. Hizkera rabinikoari dagokionez, altxorra askoz handiagoa da eta hiztegia zabalagoa, batez ere literatura honen gaia eguneroko bizitza zelako: nekazaritza eta beste lanbideak. Iturri honetatik baditugu 14.000 hitz, baina badirudi literatur hizkera aldetik, hebraiera rabinikoa ez zela biblikoa bezain aberatsa.

Erromatarrek Juduen Estatua suntsitzeak, eta gero 135era arteko borro-

kek, juduen gehiengoa erbesteratzea ekarri zuten eta hebraieraz ez mintzatzeari. Baina judurik gehienek erbesteratzearen artean ere Biblia jatorrizko hizkuntzan irakurtzen zuten eta beren otoitzak hebraieraz egiten zituzten. Gizonezkoak egunean hirutan otoitz egitera eta legea liburu rabinikoetatik ikastera behartuak egoteak, ia-ia denak alfabetatuak izatea zekarren berekin. Juduak, hitzegiteko, bizi ziren lekuetako hizkuntzaz baliatzen ziren, edota hizkuntza horietan oinarriturik moldatutako, eta letra hebraikoaz idatzirik hizkuntzez. Oraindik ere Frantziako hego-mendebaldeko judu batzu euskalki moduko hizkera batean abesten dute zenbait kanta. Espainiako erregeek 1492an bota zituen arte, gaurko Euskal Herrian bizitu ziren juduen arrastoak ba dira.

Erbestealdi osoan juduek etengabe egin zuten, bizi ziren herrialde batzutan bederen, hebraierazko literatura. Espainiako musulman eta kristauen «urrezko garaian», 900-1200, gaurre-



Europako minoria nazional guztien itxaropena, hots, kultura literarioa beren hizkuntzan mamitzea.

Dirudienez, ez zuen aitzinean hebraiera judu guztien hizkuntza bezala ezartzerik pentsatu. Aipaturiko artikuluan, alemanierazko egunkari bateko zuzendariarekin eztabaidan hasi zen. Izan ere, zuzendari hark estatu judurik ezin zitekeela izan esaten bait zuen, judu guztiek hizkuntza berean mintzatzzen ez zirelako eta, ondorioz, nazio bakarra ez zirelako.

Ben Yehuda-k erantzun zion badirela nazioak, Suiza adibidez, hizkuntza bat baino gehiago dituztenak, eta hebertarrek badutela amankomuneko hizkuntza, hebraiera alegia. Honen bidez nahi duten guztia espresa dezakete, eta nahi izanez gero, hitzegin ere bai. Baina ez du hebraieraz hitzegin beharra behin eta berriz aipatzen, bere inguruan ez bait zitzaion hizkuntza mintzatuari garrantzi handirik aitortzen; idatzia bakarrik zen axola handiko hizkuntza.

Baina bere artikulua noiz argitaratuko zain zegoela, zera ohartu zuen: hebraieraren egoera munduko beste hizkuntzena ez bezalakoa zela; beste horietan hizkuntza mintzatuaren oinarritzen zen hizkuntza literarioa, baina hebraierak ez zuen oinarririk eguneroko hizkerak arruntean. Berehala hasi zen bere lagunekin hebraieraz hitzegiten —hauek ere hizkuntza hebraikoz ondo jantzita zeuden— eta Palestinara heldu arte beste hizkuntzarik ez zuela mintzatuako agindu zuen. Paristik Jerusalem-erako bidean ezkondu zen eta bere andre gazteari aurrerantzean hebraieraz bakarrik hitzegino ziola esan zion. 1882an, semerik zaharrena jaio zitzaionean, buruan hartu zuen bere seme horrek hebraiera bakarrik entzungo zuela; bera izango zen gure garai hauetan berezko hizkuntza hebraiera izango zuen lehenengo umea. Balorea behar zuen horretarako, ez bait zuen izango jaioberriak hitzegiteko beste mutikorik inguruan.

Agian Ben Yehuda idealistegia eta

xaloezia izango zen, eta bere asmo hauek porrot egingo zioten, historia laguntzera etorri izan ez balitzaio. Bi gauza gertatu ziren halaberharrez garai horretan. Bata hizkuntza arrotzak irakasteko metodoetan sartutako berrikuntza izan zen, «metodo zuzena», hau da, hizkuntza irakatsi nahi den hizkuntza bera erabiliz irakastea eta ez itzulpen bidez. 1882an, hain juxtu. Frantzian ikasitako irakasle batek eskola bat zabaldu zuen Jerusalemen. Hebraiera, literatur hizkuntza, irakastea erabaki zuen, baina metodo zuzenaren bidez eta Ben Yehudari eman zion lan hori. Metodo berria ezin hobea zen hizkuntza nazional biziaren ametsa bizteko, eta hebraiera beren eguneroko hizkuntza bihurtuko zuten ikasleak sortzen zituen. Metodo zuzena «Hebraiera hebraieraren bidez» zeritzana, gaurregungo hebraieraren irakaskuntzari loturik geratu da, eta ULPAN da hizkuntzen irakaskuntzari Israelek ekarri dion aportazio bereziaren oinarria.

Bigarren gertaera Errusiako Alexander II Zaharraren heriotzea izan zen, 1881ean. Indar erreakzionarioek, unea egokia zela eta, herria juduen aurka xaxatu zuten eta juduak kanpora joan beharrean gertatu ziren. Batzu Palestinara jo zuten eta nekazari-herririkak eraiki zituzten. Ben Yehuda-ren asmoak onartu zituzten eta beren eskoletan, alor guztietako hezkuntzan, hebraiera ezarri zuten. Era honetan, jende-multzo handia osatu zen hebraieraz beste hizkuntzarik ez zuena; 1916an 35.000 ziren.

Lehenengo gerra mundialaren ondoren, gerra horretan judu palestindarren batailoi bat ibili bait zen aliatuekin, Mandat delakoa ezarri zen Palestinan, «juduen etxe nazionala» bertan egiteko helburuz. Juduak milaka etortzeak eta juduentzat hezkuntz egitura berezia ezartzeak, ekitaldi guztietan hebraieradun komunitatea antolatzea erraztu egin zuen. Horrela sortuak dira Unibertsitatea, Unibertsitate Teknikoa, antzerkiak, literaturgintza eta prentsa zabal eta ugaria. Era berean, parlamen-

tu sektoriala, hebraieraz aritzen zena ere sortu zen.

Gerra ondoren, 658.000 kide zituen komunitate horrek eta 1948an sortu zen Israelgo Estatuaren muina izan zen. Berehala iritsi zen judu pila galanta Israelera (700.000 lau urtetan), asko eta asko alemanek Europan eraikitako anikilategietatik, besteak Afrikako Iparaldeko «quartier de destitution» delakoetatik. Etorri berrien bereganatze linguistikoa izan zen estatu berriaren arazo nagusietako bat. Lehenengo irtenbidea irakasle boluntarioek eman zioten; hauetako bakoitzak familia oso bat hartzen zuen bere kontu eta denei irakasten zien hebraiera euren etxetan. Gero ULPANIM-ak sortu ziren, ejertzitoak eta unibertsitateak etorkinak hebraieratzen zituelarik.

Asimilazioa erabatekoa izan zen hizkuntza mintzatuaren aldetik; kultur hizkuntzaren aldetikoa ez hainbestekoa. Etorkin asko, nahiz eta herri-hebraiera ondo menderatu, ez zen literatura hizkera bereganatzeko gauza izan, batzutan ezta prentsa irakurtzeko ere. Literaturako hizkera landuagoa eta konplikatuagoa gertatzen da eta oraindik ere hitz eta esaldiak Bibliako hizkeratik eta literatura rabiniko zaharretik hartzen jarraitzen du; hau agian gaurko literatura hebraierazkoa hizkuntza mintzatua baino lehenagokoa izatearen ondorio izan daiteke. Hitz eta esaldi horiek ulergaitz dira hezkuntza linguistikoa apala dutenentzat, baina ez da idazle asko prosan idazterakoan hizkera mintzatuari jarraituko dionik. Poesian, aitzitik, estiloa gero eta hurbilagotzen ari da eguneroko hizkerara.

Ortografia da beste arazo bat. Arabierak eta pertsierak bezala, hebraierak ere ia beti —badira salbuespen batzu— kontsonanteak asmatu egin behar izaten ditu. Bokalak marka daitezke ikur diakritikoak kontsonanteen gainean

edo azpian jarriz, baina sistema hau garestia da, eta ume-liburu, poesia eta erlijiozko liburuetarako bakarrik balio du. Kontsonante eta bokalen idazkera ere Bibliakoa berbera da, eta ez dator gaurko hebraieraren ahoskerarekin bat. Ez dago ortografia aldatzerik, ezingo bait litzateke orduan Biblia irakurri (eta Biblia, erlijiozko arrazoiak direla eta, ezingo litzateke gaurko ortografiarekin idatzi).

Hebraiera mintzatuaren berbikuntzeaz gero, hizkuntza etengabe aberasten ari da. Nazio osoa bat dator hitz arrotzak ahalik eta gutxien mailegatu behar direla eta eguneroko gorabeheretan eta irakaskuntzan hebraierazko hitzak sortu behar direla berrikuntza teknikoak eta ideia modernoak adierazteko. 1890ean jadanik, berbikuntzearen hasiera baino hamar urtez lehenago, «hizkuntzaren komitea» sortu zen premia berrietarako hitzak aurkitzeko, bai iturri zaharretatik jasoz (uste baino askoz oparagoak gertatu dira) bai lehendik eskuartearen genituen elementuak konbinatuz. Urterdi bat besterik ez zuen iraun lehenengo komite horrek, baina berriz ere moldatu zen. 1903an Hebraieraren Akademia bilakatu zen, eta horren erabakiek legegaren indarra dute orain.

Gaurregun Akademia, ordenadoreen laguntzaz, 3.000 urtez dirauen hebraieraren hiztegi historikoa egiten ari da.

Ortografia lehenean egoteak eta gramatika beste hizkuntza gehienetan baino gutxiago aldatu izanak textu zaharrek errazago ulertzea dakar berekin. Gaurko umeak, izan ere, estilo literarioan idatzitako ume-ipuina bezain erraz ulertzen du maistrak ozenki irakurtzen duen Biblia zatia. Hona hain luzaroan ahozko hebraiera ez erabili izanaren alde onetako bat.

*Itzultzailea: Boni Urkizu*

## BREVE HISTORIA DEL RENACIMIENTO DEL HEBREO

El hebreo fue la lengua del pueblo judío en el período bíblico (1250-200 a.c.). La destrucción del Estado Judío por parte de los romanos trajo consigo el exilio de gran parte de los judíos, y la reducción paulatina del idioma hablado. Sin embargo, en el exilio, la mayoría de los judíos continuaron leyendo la Biblia en hebreo. Incluso todavía hubo años de florecimiento de la literatura hebrea. («Período de Oro» en España, años 900-1200).

Durante muchos años fue normal el uso de dos lenguas: el hebreo para leer, y la lengua propia del lugar donde se encontraron, para comunicarse. De todas formas, en la medida que los judíos tomaban parte en la vida social, económica y cultural de los estados en los que se hallaban, el conocimiento y uso del hebreo iba en descenso.

Eliezer ben Yehuda, a finales del siglo XIX,

fue quien promovió la idea de utilizar el hebreo en todas las situaciones de la vida. Dos hechos de vital importancia se sumaron a sus propósitos: la novedad que supuso el «método directo» de la enseñanza de lenguas, y por otro lado, la expulsión de judíos de Rusia, muchos de los cuales se afincaron en Palestina y aceptaron las tesis de ben Yehuda de utilizar el hebreo en la vida diaria y en la educación de los hijos. De aquí surgió el embrión del futuro Estado hebreoparlante.

En 1948, se constituyó el Estado de Israel con una población de 650.000 habitantes, la mayoría hebreoparlantes. Con la llegada de las primeras inmigraciones masivas, comenzó la labor de integración lingüística, que en gran medida fue llevada a cabo en los Ulpanim, y que desemboca en la actual situación de normalización lingüística.

## UNE COURTE HISTOIRE DE LA RENAISSANCE DE L'HEBREU

*L'hébreu était la langue du peuple juif durant la période biblique (1250-200 a.c.). La destruction de l'Etat Juif par les romains entraîna l'exile de la majorité des juifs et la réduction progressive de la langue parlée. Cependant dans l'exile, la plupart des juifs avaient continué à lire la Bible en hébreu. Il y eut même des périodes de floraison de la littérature hébraïque. (Période d'or en Espagne, des années 900 aux années 1200).*

*Pendant des nombreuses années l'utilisation de deux langues fut courante: l'hébreu pour lire et la langue du lieu de résidence pour se communiquer. Cependant, dans la mesure où les juifs prenaient part dans la vie sociale, économique et culturelle des états où ils se trouvaient, la connaissance et l'utilisation de l'hébreu diminuait.*

*Eliezer ben Yehuda, vers la fin du XIX siècle promut l'idée d'utiliser l'hébreu dans toutes les*

*situations de la vie quotidienne. Deux faits d'une importance vitale s'ajoutèrent à ses intentions: d'une part la nouveauté que supposa «la méthode directe» de l'enseignement des langues et d'autre part l'expulsion des juifs de Russie; nombreux s'établirent en Palestine et acceptèrent les thèses de ben Yehuda d'utiliser l'hébreu dans la vie quotidienne et dans l'éducation des enfants. C'est de là que surgit l'embryon du futur état hébreuophone.*

*En 1948, l'état d'Israël fut constitué avec une population de 650.000 habitants, la plupart hébreuophones. Avec l'arrivée des premières immigrations massives, commença la labour d'intégration linguistique qui fut réalisée en grande partie dans les «Ulpanim» et qui aboutit dans la situation actuelle d'intégration linguistique.*

## A BRIEF ACCOUNT OF THE REVIVAL OF HEBREW

Hebrew was the language of the Jews during the Biblical period (125-200 B.C.). The destruction of the Jewish state by the Romans caused the exile of the great majority of the Jews and the gradual lessening of the spoken language. However, in exile, the majority of the Jews kept on reading the Bible in Hebrew. There were even years in which the Hebrew literature flourished. («Golden Age» in Spain, 900-1200).

Two languages were normally used for many years; Hebrew for reading and the own language of the country they were living in for communicating with each other. In any case, as the Jews began to take part in the cultural, economic, and social life of the countries they lived in, both the knowledge and the use of Hebrew grew less.

It was Eliezer ben Yehuda who at the end of the

19<sup>th</sup> century, suggested using Hebrew in everyday life. Two facts of great importance made his purpose easier: the new development that the «direct method» of teaching languages implied and the expulsion of the Jews from Russia. Many of them settled in Palestine and accepted ben Yehuda's thesis about using Hebrew in everyday life and in the upbringing of their offspring. So it was that the embryo of the future Hebrew speaker state took form.

The state of Israel was established in 1948 with a population of 650,000 inhabitants, most of them Hebrew speakers. With the arrival of the first mass immigrations began the task of linguistic integration. This was carried out to a great extent in the Ulpanim and ends in the present situation of linguistic normalization.